

Lekukoa

Konpromiso bati ganoraz erantzun nahi eta ezinean ibiltzea sekula ez da gozoa izan, eta bidezkoa ere ez, kasu askotan. Eta ataka horretan ikusi dut aspaldian neure burua presidente karguan, nahi baino gehiagotan. Ez, ez da batere samurra lana, familia eta euskararen aldeko militantzia uztartzea, norberaren lehenetasunak diren hiru zutabeetan ere lehenesten ibili behar izatea. Eta hala ere, ez pentsa erraza denik hartutako ardura hori lagatzea, ezta esku onenetan lagata ere!

–Eskerrik asko, Ekaitz Olaizola eta gainerako zuzendaritzakideok–. Akordatzen zara falta diren lagunez eta haiei eta norbere buruari agindutakoez, eta beti pentsatzen duzu gehiago egin zenezakeela euskararen alde, gehiago egin beharko zenukeela, merezi duelako eta ahalegintzea dagokigulako.

Baina ez dago besterik. Gure onena emanda ere, badira egin barik laga ditugunak edo erdizka egin ditugunak, baina badaukat konfiantza talde honengan. Konpromisoa badago, borondatea eta ilusioa ere bai, eta osagai horiekin egingo dugu aurrera, guk bezala euskaraz bizi nahi duten gainerako eragileekin elkarlanean. Izan ere, gauza jakina da taldean, ilusioz eta pozez lan eginda, lortzen direla helburuak errazago. Horixe esan berri digu ilusionisten Korrikak ere: izateko nor, eta egiteko bat, izateko batzuk. Eta irteteko bidera, bazterretik mundura. Ez da, ez, irakaspen txarra bi urtean behin AEK-k Korrikarekin gogorarazten diguna. Nekez egongo da Korrika baino egitasmo arrakastatsua gorik eta hunkigarriagorik, zirrargarria delako mundu bat ikustea errepidean euskararen alde; ikustea milaka euskaltzale elkar hartuta; ikustea, azken batean, euskarak herri hau batzeko duen gaitasuna.

Esan gabe doa, hogeigarren hau are bereziagoa izan dela niretzat, hein handi batean, zuei, ...eta kitto!-ko lagunoi, esker. Lekukoari helduta egin dugu korrika Ekaitzek eta biok, eta handia izan da. Pentsatu dut une batez lekukoak barruan zezaraman mezuan eta Uxue Albedik Korrikaren kanturako josita-ko berbetan, begiratu dut ingurura, eta pozik egin dut etxerako bidea, ikusi dudalako badagoela indarra eta ilusioa. Oinarria badago, beraz, orain, hartu dezagun gogoan euskarak 365 egun dituela eta landu dezagun, euskaltzale, garenaren kontzientzia.



*Ainara Argoitia,
...eta kitto!ko
presidentea izan da
azken 2 urteetan*

Idolo berrietan esperantza

Zalantza ugari sortu zitzaizkidan zutabe hau idazteko esan zidatenean, eta azkenean, nire hausnarketa batzuei buruzko lerroak izango dituzue irakurgai. Esango nuke, txikitan, denok izan ditugula idoloak edo miresten genituen pertsonak eta pertsonaiak. Orduak ematen genituen haiei begira, begizabal, eta imitatzen saiatzen ginen, haiek bezalakoa izatea zelako gure ametsa.

Marrakzi bizidunetako pertsonaiak, kirolariak, musikariak eta horrelakoak izaten ditugu begiko gaztetan, baina denborak aurrera egin ahala konturatu naiz, gero eta miresmen gutxiago eragiten didatela. Azkenaldian nire inguruan arreta jartzen ibili naiz eta idolo berriein egin dut topo.

A ze poza eman zidan, Nepaleko umetxoak, euren herrian, euskeraren alde Korrika ikusteak. Bada denbora bat atzerritik etorritako amak ere ikusi ditudala, gure hizkuntza ikasteko prest, euren seme-alabekin euskeraz berba egiteko; polita eta hunkigarria, benetan. Hemengo baserri batera bizi izatera etorri den belgikar bat ere ezagutu dut; euskera du lehenengo hitza eta gure baserriko tradizio eta produktuekin egiten du aurrera bizitzan. Adibide ederra denontzat. Jose Manuel cadiztarra ere aipatu nahiko nuke; euskalduna izatea omen zuen amets. Andaluziatik Oionera etorri eta euskera ikasi zuen, lau urtetan EGA titulua atera, horrekin nahikoa ez eta euskera irakastera pasa zen, maisu moduan euskaltegian. Horra hor nire idolo berriak.

Horiek dira gure hizkuntzak aurrera egiteko benetako adibideak. Zailtasunak zailtasun aurrera egin dute, euren helburuak lortzeraino. Idolo berriak dira eta poz ederra hartuko nuke pertsona horien imitatzailak irtengo balira.

Poza ematen du horrelako jendea ikusteak, gure hizkuntzarekiko maitasun berezi horrekin. Etorkizunak badu zentzua denon artean lana eginez gero.

Euskeraz bizi ahal izateko jende horrek egin duen ahaleginak indarra eman beharko liguke, gure helburuak aurrera eramateko. Euskera betidanik ezagutzen dugunok hizkuntzari eutsi egin behar diogu, erabili egin behar dugu; huskeria bat, ezer jakin gabe hasten direnekin alderatuz gero.

Idolo berrien bila jarraituko dut, esperantza ez galtzeko, gaur egun ditudan ahaztu barik, jakina.



*Ekaitz Olaizola,
...eta kitto!ko
presidente berria.*

KRONOGRAMA 2016

URTARRILA

Urtarrilak 11: Harixa Emoten irakurketa-kluba. Inazio Mujikaren "Gerezien denbora".
Urtarrilak 26: San Blas tailerra berbalagunekin.
Urtarrilak 29: Barixakuan Jolasian: Aratosteetako mozorroak eskulan-tailerra Gurasoak Berbetaneko guraso eta umeentzat.

OTSAILA

Otsailak 2: Harixa Emoten irakurketa-kluba. Juanra Madariaga "Espedizioa".
Otsailak 5: Aratosteetako pregoia.
Otsailak 9: "Bizi Baratzea" hitzaldia, Jakoba Errekondorekin.
Otsailak 16: "Lehen sorospak umeentzat", ambulategietako pediatren eskutik.
Otsailak 17, 18, 19: Dendariak Berbetan, "Sartu euskera erosketen zerrendan" kanpaina.
Otsailak 21: Gurasoak Berbetan, Tor Magoa.
Otsailak 26: Barixakuak Jolasian: Txiste-jolasak.

MARTXOA

Martxoak 1: Harixa Emoten irakurketa-kluba. Aritz Gorrotxategiren "Koldar hutsa zara".
Martxoak 1-2: Xaboi naturalak egiteko ikastaroa, Xaboi Punpuillarekin.
Martxoak 3-4: "II. Gilda Lehiaketa" Euskeraz Primeran! kanpainako tabernariekin.
Martxoak 8: "Emakumeak Eibarko Industrializazioan" Arantza Lasarekin.
Martxoak 11: Barixakuak Jolasian: Fruta-brotxetak.
Martxoak 15: Gurasoak Berbetan: "Nola jarri mugak Hhko umei", Nerea Mendizabalekin.

APIRILA

Apirilak 5: Harixa Emoten irakurketa-kluba. Lander Garroren "Gerra txikia".
Apirilak 12: "Frankismoa Eibarren", Jesus Gutierrez eta Josu Ibargutxirekin.
Apirilak 15-17: I. Gin Tonic Lehiaketa, Ostalariak Berbetan.
Apirilak 19: Ostalariak eta Dendariak Berbetan: "Euskararen erabilera publizitatean", Estitxu Garairekin.
Apirilak 21: "Mil a zien" umorezko bakarrizketa, Ion Martinezekin.
Apirilak 22: I. Gin Tonic Lehiaketaren finala.
Apirilak 23: Gurasoak Berbetan, Azpeitiko Tren Museora irteera.
Apirilak 29: Barixakuak Jolasian: Antzerki-tailerra.

MAIATZA

Maiatzak 3: Euskararen Transmisioaren Mintegia.
Maiatzak 3: Harixa Emoten irakurketa-kluba. Jasone Osororen "12etan bermuta".
Maiatzak 7: Berbalagunekin FLYSCH-era irteera eta egun pasa.
Maiatzak 11: Ipurterre Ipuin Lehiaketako sari-banaketa.
Maiatzak 14: Mintza Eguna Atarrabian.
Maiatzak 20: Barixakuak Jolasian: Udaberriko jolasak.
Maiatzak 21: Tantan ezekialdia eta Gurasoak Berbetan Eguna.
Maiatzak 25: "Ortuak balkoian" hitzaldia, EHNERekin.

EKAINA

Ekainak 16: Gurasoak Berbetan: "Plaza bete poz" ikasturte amaierako jaialdia.
Ekainak 17: Berbalagunentzat ikasturte amaierako afarimerienda.
Ekainak 19: Euskal Jaialdia herri-kirol erakustaldia.
Ekainak 23: San Juan sua.

UZTAILA

Uztailak 20, 21, 22: Euskeraz Primeran! euskararen aldeko mezuak jaso eta intsigniak banatu ziren merkealdien azokan.

IRAILA

Irailak 7: Arrateko Bertso Afaria.
Irailak 8: Kittonbola Arraten.
Irailak 13: Berbetan eta Ongi Etorri Berbetanera egitasmoen aurkezpena.
Irailak 16: Berbetan eta Ongi Etorri Berbetanera jaialdia.
Irailak 21: Txoborro magoa Urkiko auzoan.
Irailak 23: "Non da elefante gorria?" antzezlan, Legarreko Jai Batzordearekin batera.
Irailak 24: "Trotamundos zirkoa" antzezlan Legarreko Jai Batzordearekin batera.
Irailak 27: Kidam magoa Amañako auzoan.
Irailak 28: Tor magoa Urkizuko auzoan.

URRIA

Urriak 1: Sagardo Eguna.
Urriak 2: Kilometroak-era autobusak.
Urriak 4: Harixa Emoten irakurketa-kluba. Anjel Lertxundiren "Zu".
Urriak 8: Ostalariak Berbetan: "Kafe-latte" ikastaroa.
Urriak 16: Nafarroa Oinez-era autobusak.
Urriak 19: Tomate-dastaketa Ortutik ahora Elkartarekin.
Urriak 21: Barixakuak Jolasian: Giltzatakoko eta brotxeak.
Urriak 25: "Euskaldun baten hizkuntza bidaia" hitzaldia, Karmelo Ayestarekin.

AZAROA

Azaroak 2, 9: "Otoro osasuntsuak" Zalao Otadyurekin.
Azaroak 7: Dendariak Berbetan: Eskapareteak apaintzeko ikastaroa, Idoia Labadorekin.
Azaroak 8: Harixa Emoten irakurketa-kluba. Asier Serranoren "Linbotarrak".
Azaroak 12 eta 13: Pirritx, Porrotx eta Mari Motolsen ikuskizuna.
Azaroak 13: Bizilagunak bazkaria (SOS Arrazakeria), Ongi Etorri Berbetan-era programaren barruan.
Azaroak 15: "Lore-dastaketa" saioa.
Azaroak 18: Barixakuak Jolasian: Zirkorako materiala.
Azaroak 27: San Andres Bertso Jaialdia eta Bertso Paper Lehiaketako sari-banaketa.
ABENDUA
Abenduak 3: Euskararen Eguna.
Abenduak 6 eta 8: Gurasoak Berbetan eta Ongi Etorri Berbetanera: Mirandaolako Olenzeroren etxera bisita.
Abenduak 13: Harixa Emoten irakurketa-kluba. Joxemari Iturraldearen "Perlak, kolpeak, musuak, traizioak".
Abenduak 20: "Sexjentziak" bakarrizketa Itziar Saenz de Ojer-ekin.
Abenduak 31: Kirolkitto! Kirol-sari banaketa.



Ongi Etorri Berbetan-era egitasmo berria

Aurtengo ikasturtean egitasmo berri bati ekin diogu, herrian ikusi diren harrera eta elkarbizitza sustatzeko preminei erantzuteko. Udaleko Gizartekintza sailarekin elkarlanean antolatutako programa honek **etorkin berriak, auzoetan integratuta daudenak eta bertan jaiotakoak** hartzen ditu aintzat eta **taldeetan elkartzen** ditu, auzoetan eta ...eta kitto!-n bertan. Egitasmo honen helburua **herriar guztiak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzea da**, eta horretarako, taldeetan elkartzeaz gainera, **ekintza osagarriak** ere eskaintzen zaizkie: irteerak, ikastaroak, hitzaldiak... Baina egitasmoak bi norabide ditu, partaideek norbere ohitura, kultura eta bestelakoak elkarbanatuko dituztelako; **Eibarko aniztasun kulturala ezagutzeko aukera bikaina**, beraz.

Taldeak Urkizu, Amaña eta Urkiko auzoetan elkartzen dira hilean birritan, eta astero, martitzenetan (goizez) eta eguenetan (arratsaldez) ...eta kitto!-n.

Urte osoan eman daiteke izena, eta aurrez aipatu bezala, etorri berriak, herrian integratuta daudenak eta bertan jaiotako lagunak behar ditugu taldeak osatu eta handitzeko. Informazio gehiago nahi izanez gero, ...eta kitto! Euskara Elkartera edo Udaleko Gizartekintza Sailera jo.

erbetan

Berbetan

2016an Euskera helburu! Goiburur horrekin ekin zion urteari Berbetan mintzapraktika egitasmoak, eta helburu horrekin dihardu aurten ere. Azkeneko urteak oso emankorrak izan dira. Programa bera asko sendotu da, euskera praktikatu nahi dutenentzat erreferente bilakatzen arte. Ehun kideko muga aspaldi gainditu genuen eta ehundaka dira gaur egun, astero astero euskera praktikatzeko elkartzen direnak. Perfila ere dezente aldatu da urteotan, kideak gaztetu egin dira, gero eta gizonetako gehiagok ematen du izena, gurasoak ere askotxo dira, eta euskeraren aldeko ahalegina egin nahi duten dendari eta tabernariak ere haziz doaz.

Ekintza osagarri ugari

Euskera praktikatzeko aukera eskaintzeaz gainera, urtean zehar hainbat ekintza osagarri ere eskaintzen dizkiegu Berbetan programako kideei: San Blas tailerra, magia-saioak, Azpeitiko Tren Museora irteera... Eta datozen asteotan ere, ikasturtea amaitu bitartean, ez da ekintzarik faltako: Urretxuko Erle Museoa bisitatuko dugu, Zugarramurdira joango gara, Euskal Herriko berbalagunak elkartzen dituen Mintza Egunean Derion izango gara, hilean behin, Barixakuak Jolasian tailerrak egingo ditugu eta, ekainean, ikasturte amaierako jaialdia eta afarimerienda.

Auzoetara

2016ko helburuetako bat horixe izan zen, herriko auzoetan ere Berbetan egitasmoaren berri ematea, eta halaxe egin genuen. Urki, Urkizu eta Amañako auzoetan izan ginen magia-ikuskizunekin. Haur mordoa etortzearekin batera guraso asko ere gerturatu zitzaizkigun, eta, programaren berri izan ondoren, hainbat talde naturalek eman zuten izena. Talde natural lehendik eginda dauden taldeei deitzen diegu, lagun-talde bat, umeen zain eskola kanpoan elkartzen den guraso-taldea, edo parkean... Talde horiek, eguneko edo asteko momenturen batean gutxienez, euskeraz berba egiteko konpromisoa hartzen dute: kafea hartzerakoan, meriendak banatzerakoan, parkean egoterakoan, kuadrillarekin elkartzekoan... Ikasturte honetan lau talde natural berrik eman dute izena, guraso-taldea dira hiru, eta laugarrena euskaltegiko ikasle-talde bat da.

Euskeraz Primeran!

2014an jarri genuen martxan Euskeraz Primeran! kanpaina, dendari eta ostalarien artean euskeraren erabilera bultzatzeko asmoarekin. Hiru urte hauetan establezimendu kopuruak ere gora egin du, 400 ingurura iristeraino. Kopurua pozgarria da, zalantzarik gabe, baina horien guztien jarraipena egitea ez da erraza. Dena dela, establezimendu guzti horiekin harremana izaten jarraitzen dugu, euren asebetetzea, konpromisoa, premiak... zeintzuk diren zuzenean jakiteko, eta neurriko zerbitzuak eskaintzeko. Horrela irten dira eta irtengo dira hainbat ekintza: kafe-latte ikastaroa, erakusleihoak apaintzeko ikastaroa, erosketetan eta ostalaritzan euskeraren erabilera bultzatzeko kanpainak, eta laster datorren II. Gin Tonic lehiaketa.





www.etakitto.eus indartzen doan ataria

Teknologia berriak etengabe ari dira aldatzen eta aukera berriak eskaintzen, eta komunikazioaren alorrean jendearengana heltzeko ezinbesteko tresna bilakatu dira. Hainbat hilabeteko lanaren ostean, webgune berrituarekin hasi genuen 2016. urtea. Euskara Elkartearen egitasmo guztiak eta herriko informazioa uztartzeko ditugu **etakitto.eus**-ek. Informazioa etengabe eguneratzen dugu. Herri mailan sortzen diren kultura, gizarte, euskara, politika eta beste hainbat esparrutako albisteak argitaratzen ditugu, paperezko aldizkariaren osagarria gisa. Albisteek gain, argazki-bildumak prestatzen eta eskaintzen ditugu, eta herriko kirol- zein kultur-agenda zabala lantzen dugu.

Webgunean paperezko *...eta kitto!* eta *Txikitto!* aldizkariaren heme-rotea aurki dezakezue, besteak beste. Eta zerbitzu desberdinak eskaintzen dira (iragarki laburrak, zorian-agurrak, eskelak, euskara zerbitzuak...).

Webgune dinamiko eta praktikoa da **etakitto.eus**. Euskara Elkartearen eta herritarren arteko harremanak erraztu nahian, proiektuetan eta jardueretan izena emateko formularioak daude, komentarioak egin daitezke...

Eguneroko ahalegina eskatzen du webguneak, baina mezezi duela uste dugu, gero eta gehiago baitzarete **etakitto.eus** bitartez jarraitzen gaituzuenak. Horrekin batera *facebook* eta *twitter* bezalako sare sozialak lantzeak berebiziko garrantzia dauka eta horretan dihardugu; izan ere gero eta gehiago dira **etakitto.eus**-en *facebook* bitartez sartzen direnak.



Urteko Batzar Nagusia egin du ...eta kitto!-k

Martxoaren 16an egin zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urteko Batzar Nagusia. Gai-zerrendari jarraituz, lehenik eta behin 2016ko Gestio Balantzea onartu zuen Batzarrek, eta 2017rako egitasmoak, bazkide-kuotak, aurrekontua eta zuzendaritza berria onduren.

Beheko aldean ikus dezakezuen moduan, bazkide-kuotei eutsi egingo diegu aurten ere; 2014az geroztik daude indarrean kuota horiek, eta, beraz, laugarren urtea beteko dute aurten.

Zuzendaritza Batzordean, aldiz, bada aldatetarik. Batetik, Ainara Argoitiak presidentearen kargua utzi du, nahiz eta Batzordean bokal gisa jarraituko duen, eta kargu hori Ekaitz Olaizolak beteko du hemendik aurrera. 2014az geroztik dihardu Ekaitzek ...eta kitto!-ko Zuzendaritzan, ondo ezagutzen du Elkarteak, eta eskarmentua du arlo askotan. Eta bestetik, bi kide berri sartu dira Zuzendaritzan: Anartz Mitxelena eta Joxe Mari Ulazia. Beraz, horrela geldituko da Zuzendaritza Batzorde berria: presidentea Ekaitz Olaizola; presidenteordea Moises Gonzalez; diruzaina Marisol Uriarte; idazkaria Maider Aranberri; eta bokalak Ana Aizpurua, Leire Alberdi, Aitor Alberdi, Julian Fernandez, Ainara Argoitia, Jon Mardaras, Ane Urkiola, Anartz Mitxelena eta Joxe Mari Ulazia.

2017ko BAZKIDE KUOTAK

	AURTEN	IAZ
· 16 urtetik behera:	5 €	5 €
· Langabea, ikaslea, jubilatua, etxekoandrea:	15 €	15 €
· Langilea:	45 €	45 €

Azken urteetan Elkarteak Batzar Nagusiak kuoten igoera KPIaren arabera egin izan du. Orain dela bi urte azken urteotako emaitza ekonomikoak eta diru-laguntzen jaitsierak ikusita, KPItik gorako igoera onartu zuen Batzarrek, eta baita 2016an kuota horiei eutsiko litzaiekela ere. 2017an ere bere horretan gelditu dira bazkide-kuotak. Kuota 2017ko maiatzaren erdialdean kobratuko dugu. Arazorik izanez gero, deitu lasai. 943 20 09 18 (Marisol).

Transmisioari buruzko Mintegia maiatzean

7. edizioa beteko du aurten Euskararen Transmisioari buruzko Mintegiak. 2011ko maiatzean antolatu zuen lehenengoz ...eta kitto!k, transmisioa hain garrantzitsua izanik, ezinbestekotzat jotzen dugulako alor hau aintzat hartzea, modu estratejikoan lantzea eta plangintzak definitzea. Hori hala, mintegi honen bitartez, transmisioaren inguruan dauden esperientzia eta praktika onak elkarbanatu eta ezagutarazteaz gain, gaiari buruz eztabaida eta lan-ildoak definitu nahiko genituzke.

Maiatzak 23. Data hori aukeratu du aurten ...eta kitto!-k Mintegia antolatzeko. Azkeneko urteotako biderei jarraituz, gainera, trinkoagoa izango da, goizez bakarrik, 09:00etatik 14:45etara, hain zuzen. Gero denok elkarrekin bazkaldu eta bazkalosteko tertulia eta eztabaidatan lasai jarduteko astia izango dugu. Nazio mailako mintegi hau euskara elkarte-etako kide, udaletako euskara teknikari, aisialdi taldeetako ordezkari, irakasle etabarri zuzenduta dago eta, aurreko urteetako begiratur gero, 80 bat lagun espero ditugu.